

**TXERTO HIRUKOITZ BIRIKOA, ARRAUTZARI ALERGIA DIOTEN UMEEN KASUAN
VACUNA TRIPLE VIRICA EN NIÑOS ALERGICOS AL HUEVO**

Espanian, bi txerto daude elgorriari, errubeolari eta parotiditisari aurre egiteko (hirukoitz birikoa): MSD® txerto hirukoitza (Sanofi Pasteur MSD) eta Priorix® (GSK). Txerto horiek ematen zaizkie umeei, oro har.

Txerto horren osagaietako bi (elgorria eta parotiditisa) oilasko-enbrioien fibroblastoetan hazitako birus bizi motelduetatik lortzen dira, eta horrek sortzen du kezka: arrautza-proteinaren bat egon daitekeelakoan eta arrautzari alergia diotenei eman ote dakiekeen.

2004a bitartean, beste aukera batzuk bazeudenez (Triviraten® eta Moruviraten®), haiek erabiltzea gomendatzen zen, nahiz eta oso zaila izan arrautzari alergia dion pertsona bati ohiko txerto hirukoitz birikoak erreakzio larriren bat eragitea.

Arrautza jan eta erreakzio anafilaktikoak zituztenez, uste zen pertsona horiek arriskuan zeudela oilasko-enbrioien fibroblastoetan hazitako txertoak hartuta.

Gaur egungo datuen arabera, badirudi parotiditisaren eta/edo elgorriaren aurkako txertoen erreakzio anafilaktikoak ez daudela arrautzaren antígenoekiko hipersentikortasunari lotuta, txertoaren beste osagai batzuei baizik (gelatina, esaterako). Txerto hirukoitz birikoa hartu ondoren erreakzio alergikoa izateko arriskua oso txikia da, eta txertoarekin azalean egindako probek ez dute adierazten hura hartu ondoren erreakzio alergikorik izango den.

Batzorde honen gomendioa:

- **Arrautzari alergia dioten ume guztiek har dezakete txerto hirukoitz birikoa euren txertaketa-zentroan; txertoa hartu ondoren, bertan geratu behar dira 60 minutuz.**
- **Arrautza jan ondoren erreakzio anafilaktiko larria izan duten umeen kasuan baino ez da gomendatzen ospitaleetan hartzea txertoa.**

En España están comercializadas dos vacunas frente a sarampión, rubéola y parotiditis (triple vírica): Vacuna triple MSD® (Sanofi Pasteur MSD) y Priorix® (GSK). Dichas vacunas se utilizan de forma generalizada en la población infantil.

Dos de los componentes de esta vacuna (sarampión y parotiditis) se obtienen a partir de virus vivos atenuados cultivados en fibroblastos de embrión de pollo, de donde surge la preocupación por la posible presencia de proteínas de huevo y su administración a individuos alérgicos al huevo.

Hasta el 2004, como había alternativas (Triviraten® y Moruviraten®), se recomendaba usarlas a pesar de que la remota probabilidad de sufrir una reacción grave tras la vacunación con la vacuna triple vírica convencional en un individuo alérgico al huevo.

Las personas con historia de reacciones anafilácticas tras la ingesta de huevo se consideraban de riesgo tras la administración de vacunas cultivadas en fibroblastos de embrión de pollo.

Los datos actuales sugieren que las reacciones anafilácticas por vacunas de parotiditis y/o sarampión no se asocian a la hipersensibilidad a antígenos del huevo, sino a otros componentes de la vacuna (como gelatina). El riesgo de reacción alérgica grave tras triple vírica es extremadamente bajo y las pruebas cutáneas con la vacuna no son predictivas de reacción alérgica tras la vacuna.

Este comité recomienda:

- **Todos los niños alérgicos al huevo pueden vacunarse en su centro de vacunación con la vacuna triple vírica habitual, debiendo permanecer en el centro 60 minutos tras la vacunación.**
- **Solo en los casos de los niños que hayan presentado reacción anafiláctica grave tras la ingesta de huevo se recomienda vacunación en el centro hospitalario.**